

Antibiotikoen kontsumoaren eta erresistentzien arteko lotura Europan

2014an, animaliek antibiotiko gehiago kontsumitu zituzten batez beste (152 mg / kg) gizakiek baino (124 mg / kg), nahiz eta erdiko balioa 67 eta 118 mg/ kg izan zen hurrenez hurren (aztertutako 28 herrialdeetatik 18tan kontsumoa txikiagoa izan zen animalietan gizakietan baino).

Horixe da ECDC/EFSA/EMAK batera argitaratu duten bigarren txostenaren emaitzetako bat. Txosten horretan, analisi estatistikoa aplikatu da Europan antibiotikoen kontsumoaren eta gizakietan eta kontsumitzeko animalietan dauden antibiotikoen aurkako erresistentzien (http://wikia.elika.eus/index.php?title=Antibiotikoen_aurkako_erresistentzia) arteko lotura balioesteko.

Aldagai bakarreko analisiaren arabera, estatistika aldetik lotura nahiko handia dago kontsumoaren eta erresistentziaren artean, honako hauetan:

1. Fluorokinolonak - *Escherichia coli* (http://wikia.elika.eus/index.php?title=Escherichia_coli) gizakietan zein animalietan
2. 3. eta 4. belaunaldiko zefalosporinak - *E. coli* (http://wikia.elika.eus/index.php?title=Escherichia_coli) gizakietan
3. Tetraziklinak eta polimixinak - *E. coli* (http://wikia.elika.eus/index.php?title=Escherichia_coli) gizakietan
4. Carbapenems eta polymyxins - *Klebsiella pneumoniae* gizakietan
5. **Makrokidoen kontsumoa animalietan, makrilidoekiko erresistentziarekin lotu zen *Campylobacter coli* (<http://wikia.elika.eus/index.php?title=Campylobacter>) kasuetan animalietan zein gizakietan**

Aldagai anitzeko analisiak (gizakietan eta animalietan antibiotikoen kontsumoa eta gizakietan erresistentzia sorrarazten duten animalien mikrobioen aurkako erresistentzia lotzekoak), berriz, honako emaitza hauek eman zituen:

1. Zefalosporinekiko eta 3. eta 4. belaunaldiko fluorokinolonekiko erresistentzia gizakietan *E. coli* (http://wikia.elika.eus/index.php?title=Escherichia_coli) kasuetan, lotuta zegoen gizakietan substantzia horien kontsumoarekin
2. **Bestalde, fluorokinolonekiko erresistentzia gizakietan *Salmonella spp.* (<http://wikia.elika.eus/index.php?title=Salmonella>) eta *Campylobacter spp.* (<http://wikia.elika.eus/index.php?title=Campylobacter>) kasuetan, lotuta zegoen animalien fluorokinolonen kontsumoarekin**

Emaitza horien arabera, "*Osasun bakarra*" estrategiaren (<https://seguridadalimentaria.elika.eus/resistencia-antimicrobiana-nuevo-plan-europeo-2017/>) ikuspegitik, bi sektoreetan badago potentziala gehiago sustatzeko antimikrobialarren erabilera arduratsua eta, halatan, gaurko eta etorkizuneko erresistentziak murrizteko.

ECDC/EFSA/EMA second joint report on the integrated analysis of the consumption of antimicrobial agents and occurrence of antimicrobial resistance in bacteria from humans and food-producing animals
(<http://seguridadalimentaria.elika.eus/resistencia-antimicrobiana-nuevo-plan-europeo-2017/>)

ELIKA . Granja Modelo, z/g . 01192 . Arkaute (Araba) . Telefonoa: 945 122 170 . Faxa: 945 122 171 . berri@elika.eus
(<mailto:berri@elika.eus>)